*Rikardo Arregi murió hace ya más de una docena de años, en 1969 cuando tenía 27. Su labor principal fue la de animador cultural en el mundo de la cultura vasca: Conferenciante, escritor y periodista, creador del movimiento de alfabetización y euskaldunización, que ha dado el actual AEK (Alfabetatze-Euskalduntze Koordinakundea).*

*Un año antes de su fallecimiento en accidente, escribió en la revista "Anaitasuna" un artículo, titulado Amorrazioa (rabia).*

*1968. Era el año de la primera condena a muerte de un militante de ETA, Iñaki Sarasketa; era el año de la muerte del comisario Melitón Manzanas; era el año de la muerte del dirigente de ETA, Txabi Etxebarrieta.*

*Eran otros tiempos... ¿Eran, de verdad, otros tiempos? Eran años en que se cuajaba la rebelión del pueblo vasco: Un pueblo rebelado ("erreboltatua"-révolté), según Ricardo Arregi. Hoy, para un gran sector, seguimos siendo un pueblo "que no se rinde".*

*Rikardo Arregi, en ningún modo revolucionario exaltado, exalta la razón airada de nuestro pueblo rebelado, única forma de mantenerse en la lucha, y rechaza la pretensión de una razón fría y desapasionada, cual la defiende la "sociedad burguesa".*

el tópico de la racionalidad (VIII)

# herri «erreboltatuaren» arrazoimena

Ehun eta hainbat preso gose-greban, hilabetetik gorako egunetan, Euskal Herritik ehundaka eta milaka kilometrotara; ehundaka lagun astero-astero prozesio luzetan Espainiako kilometro aspergarriak (ehundaka eta milaka) jan beharrean, beren espetxeratuak bisitatzeko.

Ehundaka asko seme-alaba herrikoak, herbesteratuak eta atzerrian sakabanatuak.

Espainiako Alderdi nagusiak, beren Konstituzio eta Estatutuaren gainetik, emandako autonomi apurrak LOAPA edo bestelako edozein legeren bidez lurperatzen; eta Frantziako Alderdi Sozialista bere aginte handitik, hauteskundeetan emandako bere hitza eta agindua jaten.

Milaka, hamarmilaka asko langile langabezian edo luzaroan beren lehen lana izateko esperantzarik gabe.

Herriaren protesta, arrazoi eta burruka eta guzti, botere ekonomiko-politikoen indarra, Lemoiz edonola ezartzeko eta aurrera ateratzeko prest.

Ez euskal irrati ez telebistarik, ez euskal Unibertsitaterik, ez euskarazko egunkaririk, ez... zenbat ezezko? Eta euskararen bizitza itolarrian eta hilzorian.

Euskal Herriaren batasuna ukatuta, eta zatiketa sakonduagotuz eta finkatuagotuz.

Eguneroko —hobe, gaueroko— detentzio ilunak eta komisarietako tortura amaigabeak, lege antiterroristaren ohoretan ezarriak.

Hainbat alderdi politiko, indar sozial eta erlijiozko eta kultur jende, ixilik guzti horren aurrean. Areago, edonolako protestak ixildu nahian eta protestalariak zapaldu eta zanpatu beharrean, iraindu eta beztu beharrean.

Guzti hori eta besterik dago gure Herrian: Burruka armatua, zauriketa, bahiketa eta heriotz askorekin.

Eta guzti horren aurrean, onaren eta gaitzaren gainetik bide daudenek arrazoimenaren hotza predikatzen digute: haserrea eta amorrua uxatzen dituena. Arrazoimen soila!

Amorruak arrazoimena itsutu egiten duela irakatsi digu gure eskoletako etikak. Horregatik amorrua, grina, berotasuna eta sentimentua ukatu eta uxatu egin behar omen ditu arrazoimen hotzak. Arrazoimen hotz hori bikaindu eta goratu digu etika horrek.

Baina gizakia ez da arrazoimen hutsa; ba da bihotza, ba da sentimena, ba da grina, ba da emozioa. Hori dena da gizakia. Eta denaren premia du, bereziki gure Herriak, gure gizarteak, bizi duen une eta egoera larri hau bezalakoetan.

Rikardo Arregik aspalditxo idatzi zuen arrazoimen beroaren goralpena eta arrazoimen hatzaren ustela salatu. Gaur ere bailio du. Hona:

**Amorrazioa**

*Amorrazioak prensa txarra du. Norbaitek amorrazio bizian dagoela esaten baldin badu, ezer onik ezin lezakeela uste izan ohi da. Gizon amorratuak, gizon arrabiatuak, entzuten dugunez, animalien mailan jartzen dira. Gizon horiengandik ez da ezer onik espero. Baina lur honetan gizon arrabiatu asko da, amorrazio bizian dena. Eta askotan, gehienetan behar báda, arrazoia, justizia eta eskubidea heuren baitan dago.*

*Arrazoiak gauza hotz bat izan behar duela dirudi. Norbaitek arrazoia, bere eskubidea, berotasunez defenditzen duela agiri baldin bada, behingoan uste izango da arrazoirik gabeko gizona dela.*

*Izan ere, burgesiak jaso duen gizarte honetan, arrazoiaren berotasuna ukatu nahi da. Horregatik edozein berotasun, edozein pasio, desarrazoiaren seinaletzat salatzen da.*

*Gu, ostera, Euskal Herria noski, Herri erreboltatu bat gara. Bizi garen kondizioetan Herri erreboltatu bat izateko ahalmenik ez badadukagu, gureak egin du. Gure arrazoiak, gizatiarrak direnez eta ez makinarenak, arrazoi beroak dira. Amorrazio bizian bizi behar genuke. Horretxek bakarrik eman lezaiguke, egin behar dugun borrokarentzat derrigorrezkoa dugun ausardia eta zaletasuna.*

*Gizon arrabiatuak ahalezina adiarazten duela esan ohi da. Eta egia galanta da hau. Arrabiatua, ezarritako gizartean bere gizatasunarentzat posibilidaderik aurkitzen ez duelako da arrabiatua. Horrexegatik da arrabiatua, bere gizatasuna defenditzeko beste posibilidaderik ez dadukalako.*

*Seriotasunari, formalidadeari buruz; Irudi gezurtiak ditugu. Edukazioari buruz, beste horrenbeste. Irudi eta uste horiei jarraitu nahi izatea, izugarrizko tranpa batetan jaustea litzake. Bestek nahi izandako bideetan, bestek nahi izanikako eran. Hori bakoitzaren nortasuna osatzeko izango balitz, zer esanik ere ez; baina bakoitzaren izakerarentzat kate izateko egina izatekotan, erru handi bat bezala azaltzen da.*

*Lotsarik gabe azaldu behar da, amorrazioan bizi garela. Gure arrabioak ez digula sosegurik ematen. Eta arrabio horren berotasunean egiten dugula borroka, berotasun horregaz jaso nahi dugula mundu berri bat. Horregaz Euskal Herria berregin nahi dugula.*

*(Anaitasuna, 1968-IV-30)*

Bi arrazoimen moduk egiten dute, bada, lana gizartean: hotzak eta beroak. Banaketa honek ez du zerikusirik Donibaneko Huarteren humore hotz eta beroekin. Arrazoimen bero eta hotzaren arteko banaketa ideologikoa eta soziala da batez ere.

Klase burgesak —eta horrek ezarritako gizarteko etikak— arrazoimen hotza defenditzen du. Izan ere, burgesiaren balio-sistema bere interesei loturik dago. Horregatik agintea bere eskuetan duenean, arrazoimen hotzaren ideologia proposatzen eta ezartzen du. Bere agintea arriskuan duenean, besterik gertatzen da.

Izan ere, arrazoimen hotzak zera esan gura du: eguneroko burruketatik eta errealitatearen zurrunbilotik eta bizitzaren dinamikatik urrundua; guztiaren gainetik legokeen lanpara argitsua bezala. Arrazoimen hotza abstraktua da, ustez: juzgatu behar dituen errealitateetatik bereizia. Hori da, gutxi gorabehera, bere agintean seguru dagoenak eta horrek ezarritako gizarte burgesaren etikak ideal bezala jartzen duen arrazoimen modua. Bizitzako eta gizarteko gorabeherei gainetik begiratzen dien epaile neutral eta burutsu bezala agertu nahi du arrazoimen hotzak. Baina neutraltasun-itxurak besterik ez ditu egiten arrazoimen hotzaren etika defenditzen duenak; gertatzez, eguneroko interesek lotuta daukate: bere interesen araberako ideologia besterik ez da burgesaren arrazoimen hotza. Eta irrazionaltzat jotzen du arrazoimen beroa.

Arrazoimen beroa, berriz, egoera sozial, politiko, kultural etab. aldatu nahian dabilenaren ahalmena da. Bere eguneroko burrukaren, porroten eta garaipenen experientzia bizi du. Experientzia hori, ordea, grinaz, sentimenez, minez eta negarrez, pozez eta karrasiz beterik dago: sarritan amorruak eta haserreak eraginda. Eta experientzia horretatik eta horixe aztertzetik sortzen eta mamitzen da arrazoimen beroa. Konkretua da arrazoimen beroa, bizitzari, burrukari, eguneroko gorabehera eta gertakariei lotua. Zurrunbilo horretan ez galtzeko gidaria du gizakiak bere arrazoimena, baina ez experientzia konkretu eta bizi hori alde batera uzteko. Arrazoimenaren beraren eragile ditu sentimena, grina, haserrea, amorrua, bizitza osoa: experientzia horretatik abiatzen bait da, aginte burgesak ezartzen dion ideologia zapaltzailetik bereburua ateratzeko, eta bere erara bere askapen-bidea eta politika markatzen hasteko. Intuiziotik hasten da arrazoimen beroa, eta ez du sekula intuizioa baztertzen, irrazionaltzat joaz edo.

Arrazoimen beroak ere bere kalkulu politiko hotzak egiten ditu, baina bizitzaren beroan.

**JAUSORO**




colaboración

## ni faltón ni faltoso: aturdido

Ni el texto ni el contexto de mi discurso del 6 de diciembre pasado justifican en modo alguno la injustificada y arbitraria interpretación que de él ha hecho, un mes más tarde en este mismo diario, el señor Antoñana, que no asistió a tal acto. Ningún parlamentario presente entendió en mis palabras alusión alguna a los parlamentarios ausentes. Mi intención era muy otra.

Si el señor Antoñana quiere hacer bueno en esta ocasión el lema pirandelliano *cosi è se cosi vi pare* (así es, si así os parece), allá él.

Me he quedado aturdido, dadas mis relaciones personales con el señor Antoñana, ante su diatriba. Aturdido y apenado. Ni los más viejos del lugar recuerdan cosa parecida. Algo grave está sucediendo.

Pero esa pieza antológica del escarnio y del mal gusto queda fuera del campo propiamente dicho del periodismo y de la política. Pertenece a otro, en el que, ni ahora ni nunca, quiero ni debo jugar.

Otros tienen desde este momento la palabra y la acción responsable.

Víctor MANUEL ARBELOA

## nota del gabinete de prensa de la diputación foral de navarra

El diario EGIN publicó el pasado día 17 de enero un artículo firmado por Don Patxi Zabaleta en uno de cuyos párrafos se contenían diversas aseveraciones relativas al diputado foral Don Jaime Ignacio Del Burgo. Sobre ellas deben hacerse las puntualizaciones siguientes:

1. Es radicalmente falso que el Sr. Del Burgo percibiera durante 1980 la cantidad de 10.400.000 pesetas en concepto de "gastos de representación". El Sr. Del Burgo no percibió cantidad alguna por el citado concepto, al margen de la asignación que, tanto a él como a los restantes diputados forales, le corresponde en condición de su cargo.

2. Igualmente no es cierto que la Diputación Foral haya satisfecho cantidad alguna por gastos derivados de su asistencia al Senado.

3. Respecto al uso del vehículo oficial, su utilización se ha ajustado en todo momento a las normas vigentes, al igual que los servicios de escolta de la Policía Foral que están a disposición de todos los diputados forales, sin discriminación alguna por razones políticas, dentro de su misión de proteger a las Instituciones Forales y a los miembros de la Diputación Foral.

4. En cuanto a la referencia que el artículo hace a las "cuantiosísimas dietas de Consejos de Administración", cabe señalar que los Diputados Forales, que por su condición de tales son miembros del Consejo de Administración de la C.A.N., perciben por la asistencia a cada sesión de dicho Consejo una dieta de 5.000 pesetas. Por la función desarrollada en otros Consejos de Administración dependientes de la C.A.N., cada consejero percibe la cantidad anual de 150.000 pesetas.

5. Por último, ha de señalarse que el sueldo de los diputados forales, fijado inicialmente en 150.000 pesetas mensuales brutas, sólo ha experimentado los mismos incrementos porcentuales que los sueldos de los funcionarios de la Diputación Foral. En 1981, la retribución neta de los diputados osciló, según su respectiva situación familiar, en torno a las 136.000 pesetas mensuales. Estas retribuciones son sensiblemente inferiores a las de otras Comunidades Autónomas y Corporaciones Locales semejantes. Tanto su implantación primera como sus incrementos anuales posteriores fueron decididos por unanimidad de todos los miembros de la Diputación Foral, en la que se hallan representadas las fuerzas políticas de UCD, PSOE, HB y Amaiur.

Pamplona, 21 de Enero de 1982

## reflexiones sobre la quema de autobuses

Una jornada de lucha, convocada por los trabajadores de la Cía. De Tranvías, trae a colación nuevamente el problema de la quema de autobuses.

A nuestro juicio, carece de justificación la acción de quemar autobuses u otras parecidas, máxime cuando los afectados son en su mayoría trabajadores.

Además en el caso concreto de los autobuses municipales, su quema tiene si cabe menos justificación, porque son de propiedad pública y porque los daños ocasionados, en cuanto a pérdidas económicas y deterioro del servicio, recaen sobre el conjunto de los ciudadanos y en especial sobre los usuarios de este tipo de servicio, casi en su totalidad trabajadores.

Sin embargo, queremos dejar bien claro, que el derecho a manifestarse es un derecho democrático que asiste a todos los ciudadanos y que las autoridades gubernativas en ningún caso pueden menoscabar y menos aún responder de un modo represivo.

Finalmente llamamos a la población a que actúe con serenidad, respetando las opiniones de todos de tal manera que estos hechos no contribuyan a enfrentar a distintos sectores de la población.

En este sentido pedimos a los ayuntamientos que se encuentran afectados por este problema que medien conjuntamente para hallar solución satisfactoria y manifestamos nuestro apoyo a la manifestación y paro convocados por los trabajadores de la Cía. de Tranvías.

OFICINA DE PRENSA DE EUSKADIKO EZKERRA IZQUIERDA PARA EL SOCIALISMO

cartas